



**KIROL ZERBITZUEN ETA INSTALAZIOEN ARAUTEGIA**



## **AURKIBIDEA**

### **ARRAZOIEN AZALPENA**

#### **ATARIKO TITULUA**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Ezarpen-eremua.

#### **I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. KAPITULUA ERABILTZAILEAK**

3. artikulua. Erabiltzaileak.
4. artikulua. Erabiltzaile abonatuak.
5. artikulua. Erabiltzaile abonatu federatuak.
6. artikulua. Sarrera eta/edo sarrera-bonua duten erabiltzaileak.
7. artikulua. Ikastaroetako partaideak.
8. artikulua. Kirolariak.
9. artikulua. Ikusleak
10. artikulua. Erabiltzaile abonatua izateari uztea.
11. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.
12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

##### **2. KAPITULUA KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU KOMUNAK**

13. artikulua. Kirol-instalazioetara sartzea.
14. artikulua. Kirol-instalazioak erabiltzeko arauak.
15. artikulua. Armairuak eta aldagelak.
16. artikulua. Taberna eta/edo kafetegia.
17. artikulua. Publizitatea instalazioetan.
18. artikulua. Iragarki-taula.

##### **3. KAPITULUA KEXAK, IRADOKIZUNAK, INFORMAZIO ESKAERAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

19. artikulua. Kalteengatiko erantzukizunak.
20. artikulua. Kexak, iradokizunak, informazio-eskaerak eta erreklamazioak bideratzea.

##### **4. KAPITULUA. ZIGOR-ERREGIMENA**

21. artikulua. Egoera bere onera ekartzeko neurriak.
22. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak.
23. artikulua. Zigor-espeditenteak bideratzea.



## **II. TITULUA. KIROL INSTALAZIO BAKOITZA BERARIAZ ERABILTZEKO ARAUAK**

### **1. KAPITULUA. PISTA ESTALIAK ETA KIROL INSTALAZIO ITXIAK ERABILTZEKO ARAUAK**

24. artikulua. Pista estaliak eta kirol-instalazio itxiak erabiltzeko arauak.

### **2. KAPITULUA. GIMNASIAKO ETA MUSKULAZIO ARETOAK ERABILTZEKO ARAUAK**

25. artikulua. Gimnasiako eta muskulazio-aretoak erabiltzeko arauak.

## **III. TITULUA. IKASTAROAK**

26. artikulua. Ezarpen-eremua.

27. artikulua. Izen-emateak.

28. artikulua. Baliogabetzeak eta galarazpenak.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea**

## **ERANSKINAK**



## **ARRAZOIEN AZALPENA**

Majori Kiroldegia SMk administrazio-kontseiluak onartutako arautegia du, eta horrek erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu.

Azken urte hauetan, arazoak, informazio eza eta hutsuneak antzeman dira. Arautegi berri honen xedea da horiek konpontzea.

Arautegi labur honek mamia du oinarri, eta Majori Kiroldegia SMren administrazio-kontseiluari eskumena ematen dio egoera bakoitzean egokien irizten dizkien baldintzak onartzeko eta arautzeko. Ulertu behar da horrela urtez urte edo kanpaina bakoitzean eskatzen zaizkigun premietara modu azkarrean egokituko garela, eta berrikuntza bultzatuko dugula. Era berean, eta aurrera begirako erronken aurrean, komenigarria da aipatu arautegia bat etortzea gaur egun udal-instalazioetan indarrean daudenean.

## **ATARIKO TITULUA**

### **1. artikulua. Xedea**

**Majori Kiroldegia SMko** instalazioak zuzenean nahiz zeharka kudea daitezke, kudeaketa-enpresa bati egindako emakida baten bitartez, eta, funtsean, kirola sustatzeko eta kirola egiteko, gorputz-heziketa lantzeko, eta abonatuak horiez gozatzeko daude.

Arautegi honen xedea da abonatuak eta erabiltzaileak instalazioak erabiltzekotan zein eskubide, betebeharrak eta baldintza dituzten arautzea.

### **2. artikulua. Ezarpen-eremua**

Arautegi hau Majori Kiroldegia SMren mendeko diren instalazio guztietan aplikatuko da titularitatea edozein dela ere, eta baldintza-orrietan utzitako instalazioen ustiakarako berriaz aurreikusitakoari kalterik egin gabe.



## **I. TITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK**

##### **3. artikulua. Erabiltzaileak**

Erabiltzailetzat hartuko dira Araudi honetan jasotako baldintzak bete eta instalazioak erabiltzeko instalazioetara sartzen diren pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

Honako hauek izango dira instalazioen erabiltzaile-motak:

- a) Erabiltzaile abonatua.
- b) Erabiltzaile abonatu Federatua.
- c) Sarrera eta/edo sarrera-bonua duen erabiltzailea.
- d) Ikastaroetako partaidea.
- e) Kirolaria.
- f) Ikusleak.

##### **4. artikulua. Erabiltzaile abonatuak**

Erabiltzaile abonatutzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoa: eskaera-inprimakia legezko tokiren batean aurkeztu eta izena eman duena, eta kuotaren ordainketa egunean duena. Majori Kiroldegiaren erabiltzaile abonatua izateko, eskaera-formularioa bete beharko da, eta horretan eskatutako datuak jaso beharko dira.

Erabiltzaile abonatua izateak eskubide ematen du Majori Kiroldegiko hurrengo instalazioetara sartzeko, instalazio horien ordutegiaren barruko edozein ordutan, beste jardueretara bideratutako zerbitzuetara izan ezik:

- Fitness aretoa.
- Barruko eta kanpoko igerilekuak.
- Sauna.
- Squash aretoa.
- Atletismo pista.

Erabiltzaile abonatuak hala direla frogatu beharko dute horretarako finkatutako sistemen bitartez.

Gaitzen duen txartela edo gailua pertsonala eta besterenezina izango da. Txartel edo gailu berri bat egin behar bada, aurrekoa lapurtu, galdu edo hondatu delako, ezarriko den diru-kopurua ordaintzera derrigortzen du.

Abonatu motak hurrengoak izango dira:

- Abonatu orokorra
- Abonatu familiarra



- Abonatu orokorra gaztea ( -18 )
- Abonatu federatua
- Abonatu orokorra seniorra

Abono familiarrak elkar bizi edo ezkondata dauden bikoteak eta beren 18 urte azpiko semeak barneratzen ditu. Familia-txartela dutenei 18 urtez beherakoentzako abonua egin dakieke 22 urtera bitartekoei ere; betiere, langabezian edo ikasten dagoela justifikatzen bada. Horretarako, langabezia-ziurtagiria edo ikasle-matrikula aurkeztu beharko da.

#### **5. artikulua. Erabiltzaile abonatu federatuak**

- a) Erabiltzaile abonatu federatu oro bere taldeak entrenamendurako eta/edo partidarako erreserbatu duen instalaziora sartu ahal izango da, entrenatzailea bertaratu bezain laster.
- b) Instalazioak ordu horietatik kanpo erabiltzeko, erabiltzaile ez-abonatu batek dituen baldintza beretan egingo da.
- c) Altamirako gimnasioa 16 urtez gorako federatuek erabiliko dute, gimnasioaren ordutegiaren barruan. 16 urtetik beherakoak entrenatzailearen ardurapean egongo dira, eta hark gainbegiratu beharko ditu.
- d) Abonu federatuak Majori Kiroldegiari kirol elkarteek bideratuta eskatuko dira.

#### **6. artikulua. Sarrera eta/edo sarrera-bonua duten erabiltzaileak**

Eguneko sarrerak aukera ematen du abonuen atalean zehazten diren instalazioak erabiltzeko. Sarrera, bestalde, erabilera bakarrekoa eta besterenezina izango da. 10 saiotako bonuek besterengarriak dira; betiere, onuradunak adin-tarte berekoak edo txikiagokoak direnean. 10 saiotako bonuak bi adin-tarte desberdinekoak izango dira: 18 urtez gorakoentzat, eta 18 urtez beherakoentzat. 10 saiotako bonuek aukera ematen dute abonatuaren atalean zehazten diren instalazioak erabiltzeko. Aplikazio berdina izango dute aurrerantzean onar daitezkeen bonuek ere.

#### **7. artikulua. Ikastaroetako partaideak**

Ikastaroetako partaidetzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen pertsona: eskaera-inprimakia legezko tokiren batean aurkeztu eta izena eman duena, ikastaroan onartzen dutena, eta kuoten ordainketa egunean duena.

Egiaztagiri bat emango zaio, eta agiri hori aurkeztu beharko du instalazioetara sartzean. Dokumentu hori pertsonala eta besterenezina izango da.

#### **8. artikulua. Kirolariak**

Kirolaritzat hartuko da Ordiziako talderen baten aurka instalazioetan lehia jardun behar duen pertsona, lehia ofiziala izan ala ez. Talde bisitaria harrera gunera joango da arduradun batekin; honek, beharrezkoak diren giltzen eta, hala badagokio, esleitutako aldagelaren egoeraren fidantza gisa, nortasun-agiria utziko du. Talde osoa sartuko da kiroldegiko langileak horretarako baimena ematen dionean.



## **9. artikulua. Ikusleak.**

Jardueraren eta instalazioaren ezaugarrien araberakoa izango da ikusleen sarrera. Jarduera jakin hori antolatzen duen erakundeak izango du ikusleen jarreraren ardura.

## **10. artikulua. Erabiltzaile abonatua izateari uztea**

Araudi honetan ezarritakoa betetzen ez bada, erabiltzaile abonatua izateari uzteko arriskua egongo da, eta, horren ondorioz, ezin izango da instalazioetara sartu.

Halaber, kirol-jarduerako bazkidetza kenduko zaie dagokien kuota ordaintzen ez duten erabiltzaileei.

Zerbitzua nahita utzi nahi izanez gero, dagokion inprimaki ofiziala bete beharko da, eta horretarako finkatutako lekuetan baja formalizatu. Bajaren berri ematerakoan, bazkideak familia-bonua badu, familiako zein kideri baja eman zehaztu beharko du. Instalazioan jarraituko duen abonatuak egoera berrira egokitu beharko du.

Abonuen edo ikastaroen ordainketak aurreratu badira, eta abonu edo ikastaro horiez osoki edo partzialki gozatu bada, ez da horien itzulketarik egingo, horietara ez agertzearen arrazoiak edozein dela ere. Itzuli egingo dira batere erabili ez diren zerbitzuen %80-a, kudeaketa kostuengatik % 20-a kobratuko delarik, baldin eta gozatzeko edo jarduera hasteko data baino 5 egun lehenago eskatzen bada. Epe hau pasa eta gero ez da inolako itzulketarik egingo.

Urteko alta eskatuz gero, ezin izando da baja eskatu alta eskatu den urtea bukatu arte, ordainketak hiru hilez behingoak izanik ere, urte osokoa ordaindu behar baita.

Banku-erakundeak abonu baten ordainagiria itzultzen duenean, eta abonatuak jakinarazpenaren ondotik ordaintzeari uko egiten dionean, abonatuak ordaindu gabekoaz gain % 20-ko erretegia izango du hurrengoan berriro ere alta eman nahi duenean.

Kuotak ordaintzen ez dituzten pertsonak ezin izango dute instalazioetara sartu. Indarrean dauden hiruhilekoak ordaintzen ez dituzten abonatuei automatikoki baja emango zaie.

## **11. artikulua. Erabiltzaileen eta/edo abonatuaren eskubideak**

### **10.1. Erabiltzaileen eskubideak.**

- 1- Instalazioak eta instalazioetan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, berriazko erabilera-arauek eta horretarako gaitzen duen txartelaren arabera.
- 2- Instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileek eta gainerako erabiltzaileek errespetuz eta begirunez hartzeko eskubidea.
- 3- EAEko edozein hizkuntza ofizialetan zerbitzua jasotzeko eta harremanak izateko eskubidea.



4.- Bulegoetan, kirol-instalazioetan edo web orrian, instalazioak erabiltzeko baldintzei eta instalazioetan ematen diren zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Horrez gain, baldintzei eta zerbitzuei buruz eskatzen diren dokumentuak —araudiak, prezioak, izena emateko orriak, ikastaroak...— jasotzeko eskubidea.

5- Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea. Instalazioa zeharka kudeatzen denetan, kudeaketaren arduradunak erreklamazio-orriak izan beharko ditu, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legean eta Legea garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

6- Erabiltzaile abonatuak unean-unean jarriko diren prezio bereziak izateko eskubidea.

7- Noiznahi edozein langileri identifikazioa eskatzeko eskubidea, erreklamazioak egiteko.

8- Indarrean dagoen legeriak eta araudi honek aitortutako beste edozein eskubide.

#### **10.2. Elbarrien eta mugikortasun urriko erabiltzaileen eskubideak:**

Aurreko puntuan adierazitako eskubideez gain, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie % 33-a baino elbarritasun handiagoa duten pertsonari edota beste pertsonen beharra kalkulatu duen baremoan 15 puntu baino gehiago duten pertsonari:

- Bana-banako arreta eta lehentasunezkoa izateko eskubidea. Instalazioan dauden bitartean, bertako langileak beraiekin egotea eskatu ahal izango dute, baita kirol-jarduera egitera sartzeko eta irteteko eta jarduera egiteko prozesu osoan laguntza ematea ere. Instalazioekin zerikusirik ez duen beste pertsonaren batekin etortzen direnean, pertsona horrek ez du sarrera ordaindu beharko; betiere, mendekotasuna duen pertsonari laguntzeko denean, sekula ez gozamen propiorako denean.

#### **12. artikulua. Erabiltzaileen eta/edo abonatuaren eskubideak:**

1- Instalazioak eta ekipamendua Araudi honetan xedatutakoaren eta langileek instalazioa erabiltzeko emandako oharren arabera erabiltzeko betebeharra. Horrez gain, errespetatu egin behar da zerbitzuarekin eta zerbitzuaren gorabeherekin lotuta jartzen diren karteletan edo bestelako adierazleetan adierazitakoa.

2- Erabiltzailea edo abonatua instalazioetara sartzeko gaitzen duen txartela aurkezteko betebeharra, eta, eskatzen zaionean, NA edo identifikatzeko beste agiri ofizialen bat erakusteko betebeharra.

3- Arropa eta objektu pertsonalak horretarako jarriko diren armairuetan gordetzekoa.

4- Dagokion tarifa eta kuotak ordaintzekoa.

5- Instalazioetan, langileekin eta gainerako erabiltzaileekin behar bezala jokatzeko betebeharra.

6- Sei (6) urte baino gehiago ez dituen haur erabiltzaileak sexuari erreparatu gabe erabili ahal izango ditu aldagelak (gizonezkoena nahiz emakumezkoena), adinez





**nagusi den erabiltzaile bat lagun duela; halakoetan, adin txikikoaren laguntzailearen sexuari dagokion aldagela izango da erabili beharrekoa.**

**7- Indarrean dagoen legeriak eta araudi honek aitortutako beste edozein betebeharrak.**



## **2. KAPITULUA. KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU KOMUNAK**

### **13. artikulua. Kirol-Instalazioetara sartzea**

Sartzeko kontrola dagoen instalazioetan, erabiltzaileek, edo, bestela, taldearen arduradunak sarrera gaitzen duen txartela aurkeztu beharko dute instalazioetara sartzeko, eta NA edo identifikatzeko beste edozein agiri ofizial ere aurkeztu beharko da halakorik eskatuz gero.

Sarrera gaitzen duen txartelak arazoren bat badu, edo hondatuta badago, instalazioko langileak kendu egingo dio, baina une horretan sartzen utziko dio.

Galarazita dago instalazioetara animaliak sartzea, baldin eta egin beharreko kirol-jarduerak animaliairentzat erabiltzea eskatzen ez badu, edo behar bezala baimendutako egoera jakin bat ez bada.

Pertsona itsuekin eguneroko paseoan dabiltzan gida-txakurrak haietzako egokitutako tokietara sartzea baimenduko da.

### **14. artikulua. Kirol-Instalazioak erabiltzeko arauak**

#### *13.1. Orduategia:*

Instalazioak jarduera bakoitzerako finkatutako orduategian eta gunean erabiliko dira, eta, hala dagokionean, berariazko programazioaren arabera. Irekitzeko finkatutako orduategiak instalazioa orduategi horretan ixtea baldintzatzen du; horrenbestez, erabiltzaileek ixteko ordua baino 15 minutu lehenago utzi beharko dituzte instalazioak, itxiera-ordua finkatutako orduegiaren barruan egin ahal izateko.

Talde erabiltzaileen kasuan, finkatutako orduategia baino 30 minutu lehenago sartu ahal izango dira aldageletara. Denbora hori 60 minutura luzatu ahal izango da lehiaketa barruko partidak direnean, beti ere, instalakuntzen orduategien barruan.

#### *13.2. Jantziak:*

Kirol-jantzi egokiekin sartu beharko da kirol-guneetara. Arropak aldatzeko, biluztu behar izanez gero, ezinbestekoa izango da aldageletan aldatzea jantziak.

#### *13.3. Beste arau batzuk:*

1- Debekatuta dago kirol-instalazioetan erretzea, baita taberna gunean ere. Ezin da ez janik, ezta kristalezko ontzirik sartu ere, taberna gunera izan ezik.

2- Galarazita dago baloiekin, pilotekin edo beste objektu batzuekin jolastea aldageletan, pistetara sartzeko pasilloetan, harmailetan eta kirol-gunetzat hartzen ez diren eremu guztietan.

3- Debekatuta dago ikastarorik egitea edo zerbitzurik ematea kirol-instalazioetan Majori Kiroldegia SMK programatu edo baimendu ez badu.



4- Majori Kiroldesia SMren instalazioetan entrenatuko duten taldeek, entitateek... erabiltzaile abonatu federatuak izan beharko dute, bederen. Hala ez balira, sarrera debeka lekieke.

5- Majori Kiroldesia SMk, ohiz kanpo, eta beharrezkotzat jotzen duenean, orduak eta kantxak har ditzake. Hala gertatzen denean, Majori Kiroldesia 48 ordu lehenagotik saiatuko da horren berri ematen.

6- Majori Kiroldesia SMk ez du bere gain hartuko kirola egiterakoan sor litezkeen istripuen erantzukizunik; horrenbestez, aukeratutako kirol-jarduera egiteko egin beharreko azterketak egitea gomendatzen du.

7- Erabiltzaile kolektiboak taldeko edozein partaidek instalazioak erabiltzean sor lezakeen kalte eta akatsak bere gain hartuko ditu. Orobat, bere ardura izango da taldea behar bezala portatzea, instalazioetan sartzeko denetik irteten den arte.

## **15. artikulua. Armairuak eta aldagelak**

Objektuak armairuan eta aldageletan uztean, ez da gordetzeko inolako kontraturik egiten, eta, beraz, instalazioaren jabeak ez du bere gain hartuko objektu horiek zaintzeko ardura.

Aldagelen eta armairuen erabilera kirol-jarduera jakin bat egitearekin lotuta dago, eta, hortaz, jarduera hori bukatzean, aldagelak eta armairuek hutsik geratu beharko dute.

Kirol-guneak itxi ondoren, erabiltzaileak 15 minutu izango ditu aldagelak erabiltzeko. Era berean, aurrez finkatutako ordutegia duen kirol-jarduera bukatu ondoren, erabiltzaileak 15 minutuko tarte izango ditu aldagelak erabiltzeko.

Eguna bukatzean aldageletan eta armairuetan gelditzen diren objektuak eta instalazioetako beste tokietan galduta geratutakoak horretarako bereziki prestatutako tokiren batean gordeko dira.

Talde erabiltzaileei dagokienez, entrenatzaileek, irakasleek edo taldeen arduradunek egiaztatu beharko dute zer egoeratan dauden instalazioak beren jokalaria eta kontrako taldeak instalaziora sartu aurretik eta atera ondoren, eta baieztatu egin beharko dagoela ezer hondatuta. Arazoren bat ikusten bada, instalazioko langileei jakinarazi beharko zaie. Arau orokor gisa, entrenatzaileek, irakasleek edo taldeen arduradunek aldageletan egon beharko dute jokalaria aldatzen diren bitartean, beren portaera egokia dela bermatze aldera.

**Alokatzeko armairuak** egokituko balira, horiek zerbitzura harpidetuta dauden erabiltzaile abonatuentzat izango da soi-soilik.

Armairuetan guztiz galarazita dago arropa heze sartzea, ageriko higie arrazoiak tarteko. Armairuko giltza galduz gero, horren berri eman beharko da harrera gunean, eta giltza aldatuko da; horren kostua erabiltzaileak hartuko du bere gain. Zerbitzu hori baliatzeko eskaerari dagokionez, zorrotz gordeko da eskaera-ordena, eta armairu guztiak hartuta daudenean, eskatzaile berriak itxarote-zerrenda batean jasoko dira.



## **16. artikulua. Taberna eta/edo kafetegia**

Zerbitzu hori ematen den instalazioetan, Majori Kiroldegia SMren araudiaren arabera kontratatuko da zerbitzuaren kudeaketa.

Jarduera pribatua, eta titularraren kabuz eta bere erantzukizunpean egiten den jarduera izanik ere, titularrak errespetatu egin beharko du eta errespetarazi egin beharko du Araudi hau bere instalazioetan, berari dagokion gaietan, baldintza-pleguan xedatutakoari kalterik egin gabe.

## **17. artikulua. Publizitatea instalazioetan**

Oro har, publizitate egonkorra jartzen bada, horrek ezingo dio kalterik egin instalazioari eta ezingo du arrastorik utzi kendu ondoren. Ezingo da jarri jokalekuan, baldin eta ez badago horretarako baimen berezirik. Kasu horietan, jokaleku osoa berriro pintatzeko kostuaren % 50en pareko bermea jarri beharko da.

Ezin izango dira publizitate-panelak jarri, baldin eta horien kokapen, material edo ezaugarri teknikoengatik arriskutsuak badira jokorako.

Publizitatearen edukiak publizitatea arautzen duen Araudiarekin bat etorri beharko du, eta Majori Kiroldegia SMk onartua beharko du izan.

Baimena eskatu beharko da partida edo ekitaldi bakoitzean publizitatea jartzeko. Eskieran zehaztuko dira honako alderdi hauek: zer eduki sartu nahi diren iragarkian, zer tokitan jarriko diren, eta zer neurri edo motakoa izango den.

Publizitatea jartzeko baimena partidak edo ekitaldiak irauten duen denborara mugatuko da. Partida edo ekitaldia amaitzean, publizitatea jarri duen klubak edo erakundeak kendu egin beharko du, eta hasieran zegoen bezala utzi beharko du instalazioa.

Publizitatea jartzeko eta kentzeko gastuak, eta ekintza horiek sortzen dituzten gastuak baimendutako erakundeak ordaindu beharko ditu.

Publizitatea instalazioan gorde behar bada, materialak suaren aurkakoa izan beharko du.

Ordain gisa, publizitatea jartzen duen entitateak 2 m x 1 m neurtzen duen eremua utzi beharko du eskuineko alboko hegalaren erdian eta beste bat ezkerreko alboko hegalaren erdian, bi eremu horietan Majori Kiroldegia SMren eta Ordiziako Udalaren erakunde-publizitatea jartzeko.

## **18. artikulua. Iragarki-taulak**

Majori Kiroldegiko iragarki-taula soilik instalazioa kudeatzen duen entitateak erabiliko du deialdiak, oharrak eta egoki irizten dion informazio orokorra jartzeko.

Bestalde, bada erabiltzaileek erabiltzeko moduan izango duten iragarki-taula bat, kirol-erloto edozein iragarki bertan jartzeko. Horretarako, iragarkia instalazioaren harrera gunean



erakutsi beharko da, eta jartzeko baimena jasotzen badu, gehienez ere 15 eguneko epean egongo da jarrita.



### **3. KAPITULUA. KEXAK, IRADOKIZUNAK, INFORMAZIO-ESKAERAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

#### **19. artikulua. Majori Kiroldegia SMk duen ondare-erantzukizuna**

Oro har, Majori Kiroldegia SM ez da erabiltzaileek izan ditzaketen lesioen erantzule egingo, baldin eta lesioa instalazioa egoera txarrean daudelako gertatu ez bada.

Nolanahi ere, majori Kiroldegiak ez du ardurarik hartuko erabiltzaileak istripurik edo kalterik izaten badu Araudi hau ez betetzeagatik, beste erabiltzaile batek jokabide arduragabea izateagatik edo instalazioak, ekipamenduak eta zerbitzuak gaizki erabiltzeagatik.

#### **20. artikulua. Kexak, iradokizunak, informazio-eskaerak eta erreklamazioak bideratzea**

Kexak, iradokizunak, erreklamazioak edo eskaerak modu hauetakoren batean egin ahal izango dira:

1- Ahoz, instalazioko langileei. Hauek, hasiera batean, beren esku dagoen guztia egin beharko dute arazoa konpontzeko, eta dena delakoa idatziz jaso beharko dute.

2- Idatziz, kirol-instalazio guztietan, bulegoetan eta web orrian erabiltzaileen eskura egongo diren ereduaren bitartez.

3- Telefonoz, ahoz egindako kexa baten prozesua eginez.

4- Internet bidez, Majori Kiroldegiaren web orrian.

Iradokizunen, kexen, erreklamazioen edo eskaeren kasuan, erantzuna jaso nahi bada, postahelbidea edo e-maila jarri behar da, horiek aurkezten dituen interesdunarekin harremanetan jartzeko.

Eskaerak, iradokizunak edo kexak dokumentu erantsiak eduki ahal izango ditu.

Organo eskudunak ahalik eta azkarren erantzungo die erabiltzaileei (beranduenera ere 15 eguneko epean), herritarrek erantzuna jasotzeko adierazi duten helbidean.



#### **4. KAPITULUA. ZIGOR-ERREGIMENA**

##### **21. artikulua. Egoera bere onera ekartzeko neurriak**

Instalazioetako langileek neurriak hartu ahal izango dituzte egoera bere onera ekartzeko eta zerbitzua berriro martxan jartzeko, bidezko diren zigoren kalterik gabe. Jokabide hauetakoren bat duten erabiltzaileak kirol-instalaziotik botatzeko ahalmena izango du:

1- Instalazioen erabilerari buruzko Araudi honetako arauren bat hausten dutenak. Halakoetan, egoera une horretan bertan baloratuko da, eta kontuan hartuko dira baldintza hauek: hutsegitearen larritasuna, arau-haustea zuzentzeko abisuei kasurik ez egitea, beste erabiltzaileei kalte nabaria egitea, aurretik ere arau-hauste hori egin izana, eta antzeko beste hainbat baldintza.

2- Sartzeko balio duen txartelik ez izatea, instalazio bat aurretik erreserba egin gabe erabiltzea barne, erreserba egitea nahitaezkoa denean.

3- Gizarte-bizikidetzaren eta higienearen kontrako ekintzak egitea, edo beste jarrera antisozial batzuk izatea.

4- Kirola hartarako jarritako guneetatik kanpora egin delako froga edo erakusgarria agerikoa izatea.

5- Kirol-txartela edo sartzeko gaitzen duen txartela erabiltzea txartel horren titularra izan ez arren. Halakoetan, erabiltzailea bota, eta sartzeko erabilitako txartela kendu egingo zaio.

Edozein kasutan ere, zigor-espeditentea zabalduko zaio, eta arau-haustea egin duenari helegitea jartzeko edo egoera argitzeko beharrezkotzat hartzen duen informazioa aurkezteko aukera emango zaio. Informazio guztia bilduta, Majori Kiroldegiak hartu beharreko neurriak hartuko ditu.

##### **22. artikulua. Arau-haustek eta isunak**

###### **22.1. Arau-hausteen tipifikazioa:**

Ara-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

###### **22.1.1 Arau-hauste *oso larritzat* hartzen dira honako hauek:**

a) Instalazioetako langileei edo erabiltzaileei tratu txarra ematea, edo bizikidetzaren nabarmen nahastea, eta, horren eraginez, instalazioetako lasaitasunean eragin larria, zuzenekoa eta berehalakoa sortzea. Instalazioetako adin txikiko erabiltzaileei edo mugikortasun urriko pertsonari tratu txarra ematen bazaie eta haien aurkako indarkeria erabiltzen bada, oso larritzat hartuko da beti.

b) Instalazioetan alarma faltsuak edo aztoramena sortzea.



c) Kirolo-instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei aipatu horiek erabiltzen ez uztea. Oso larritzat hartzen da baldin eta adin txikikoei edo mugikortasun urriko pertsoneri eragiten badie, edo indarkeria erabiltzen bada.

d) Beste erabiltzaileei beren legezko eskubideak erabiltzen ez uztea; bai Araudi honek ematen dizkien eskubideak, bai aplikatu daitezkeen beste edozein araudi juridikok ematen dizkien eskubideak ere.

e) Zerbitzuari normal funtzionatzeko ez uztea, edo traba larri eta nabarmena egitea.

f) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarriak nahiz higiezinak larri eta nabarmen hondatzen dituzten ekintzak. Oso larritzat hartuko dira konponketaren kostua 1.500,1 euro baino handiagoa denean.

g) Larrialdi- eta ebakuazio-planerako beharrezkoak diren elementuak lapurtzea, txikitzea edo hondatzea: alegia, alarmak, fitxak, txalekoak, su-itzalgaileak eta kartelak...

h) Segurtasun-araudia ez betetzea.

i) Zigor Kodeko 368. artikuluan xedaturiko substantziak (droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak) kontsumitzea edo horiekin trafikitzea kiroldegian barruan edo hari erantsitako instalazioetan.

j) Besteen gauzak modu ilegalean bereganatzea.

k) Larritzat hartzeko moduko jazarpen fisiko, morala edo sexuarekiko jarrerak.

l) Aurreko puntuan adierazitako jokabideak errepikatzea.

m) Harpidedun-agiriaren salerosketan jardutea.

#### **22.1.2 Arau-hauste *larritzat* hartzen dira honako hauek:**

a) Instalazioetako langileei edo erabiltzaileei tratu txarra ematea, edo bizikidetzan nabarmen nahastea, baldin eta oso larritzat hartzerik ez badago.

b) Kirolo-instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei aipatu horiek erabiltzen ez uztea, eta arau-hauste oso larritzat hartzen ez denean.

c) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri nahiz higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 1.500 eta 600 euro artekoa denean.

d) Instalazioak erabiltzea baimentzen duen txartelik edo dokumenturik gabe erabiltzea behin eta berriro, edo beste erabiltzaile baten txartelarekin pasatzea.

e) Erreserbak egitea edo zerbitzuak erabiltzea eta horiek ez ordaintzea.

f) Animaliak edo Araudiak debekatutako beste zenbait elementu sartzea.

g) Erreserba-denbora igarota, instalazioa ez uztea, eta beste kirolari batzuei erabiltzeko





eskubidea galaraztea, baldin eta arau-hauste arina ez bada.

h) Igerilekuetako edo instalazioetako ura zikintzea, ekintza larria izan denean.

i) Zerbitzuari buruz sorosleek, teknikariek nahiz, oro har, Majori Kiroldegiko langileek emandako aginduak aintzat ez hartzea.

j) Arau-hauste oso larrietako ekintza berak egitea, baina 24.2 artikuluko irizpideak aplikatuta neurtzen direnean.

### **22.1.3. Arintzat hartzen dira honako hauek:**

a) Instalazioak txartelik edo instalazioa erabiltzea baimentzen duen dokumenturik gabe erabiltzea.

b) Instalazioetan erretzea.

c) Armairua kirol-jarduerarako ez den beste zerbaiterako erabiltzea, eta armairua hutsik ez uztea kirol-jarduerak amaitzean.

d) Instalazioetara oinetako edo jantzi desegokiekin sartzea.

e) Dutzako ura alferrik gastatzea.

f) Bultzatzea, saltatzea edo jolastea, baldin eta horrek besteak gogaitzen baditu edo istripua egoteko arriskurik sortzen badu.

g) Instalazioetako langileei ez jakinaraztea funtzionamenduan dauden arazoak: hausturak, hutsuneak edo Araudiko arauen bat ez dela betetzen hautematea. Entrenatzaileek, irakasleek, begiraleek edo talde baten ordezkari den edozein langilek izango du arazo horien berri emateko ardura.

h) Instalazioen erreserba ez ordaintzea, erreserba eskabidean oinarritzko daturik eman ez izanaren ondorioz, hura eman gabe geratzea eragitea edo hura lortzeko ezaugarri beharrezkoen jabe moduan agertzea, erreserbatutako instalazioa araudi honetan xedaturikoez bestelako gauzetarako erabiltzea, edo erreserbatutako instalaziora zio funtsaturik gabe behin eta berriro ez agertzea.

i) Arau-hauste larrietako ekintza berak egitea, baina 24.2 artikuluko irizpideak aplikatuta arau-hauste arin gisa neurtzen direnean.

j) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri nahiz higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 600 eta euro 1 artekoa denean.

### **22.2. Zehazki, arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira irizpide hauen arabera:**

a) Lasaitasunean edo beste pertsonen edo jardueren eskubideen erabilera baketsuan eragindako nahasmendu-intentsitatearen arabera.

b) Osasungarritasunean edo apaingarri publikoetan egindako nahasmendu-intentsitatearen



arabera.

- c) Zerbitzu bat edo gune publiko bat erabiltzeko eskubidea duten pertsonen gune hori erabiltzean sortutako nahasmendu-intentsitatearen arabera.
- d) Zerbitzu funtzionamendu arruntean sortutako nahasmendu-intentsitatearen arabera.
- e) Ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo zerbitzuko elementuetan sortutako kalteen intentsitatearen arabera.
- f) Nahita egin izana, arduragabekeria-maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako duen arriskua, eta behin eta berriro egitearen arabera.

### 22.3. Zigorrak:

Arau-hauste **arnei** ondoren aipatzen diren zigor horietako bat edo hainbat aplikatuko zaizkie, zigor-ahala erregulatzen duen arautegiaren arabera:

1- 50 eurotik 750 eurora arteko isuna, eta instalazioetatik kanporatzea egun batetik bi astera bitartean.

2- 2 - 5 egun bitartean Komunitatearentzako lanak egiten.

Arau-hauste **larriei** ondoren aipatzen diren zigor horietako bat edo hainbat aplikatuko zaizkie, zigor-ahala erregulatzen duen arautegiaren arabera:

1- 750,1 eurotik 1.500 eurora arteko isuna.

2- Erabiltzaile-eskubiderik gabe geratzea, eta instalazioak erabiltzeko debekua sei hilabetetik urtebetera bitartean.

3- 6 - 15 egun bitartean komunitatearentzako lanak egiten.

Arau-hauste **oso larriei** ondoren aipatzen diren zigor horietako bat edo hainbat aplikatuko zaizkie, zigor-ahala erregulatzen duen arautegiaren arabera:

1- 1.500,1 eurotik 3.000 eurora arteko isuna.

2- Erabiltzaile-eskubiderik gabe geratzea, eta instalazioak erabiltzeko debekua urtebetetik 5 urtera bitartean.

3- 15 egun eta 3 hilabete bitarteko apean komunitatearentzako lanak egiten.

*22.4. Gertaeren larritasunaren arabera, instalazioak erreserbatzeko eskubidea gehienez ere urtebeterako galduko du, erreserba gauzatu ondoren, xedaturiko jokabideren bat gauzatzen duenak.*

*22.5. Bazkide/erabiltzaile-eskubideak galtzeak, berarekin dakar bazkide-txartela kentzea eskubiderik gabe geratzen den denbora-tartean.*

*22.6. Artikulu honetan tipifikatutako gertaerengatik jar daitezkeen zigorrek gorabehera,*



*arau-hausleak lehengo egoeran utzi eta berritu egin beharko ditu ondasunak, eta sortutako kalteen eta galeren kalte-ordainak eman beharko ditu. Horien zenbatekoa zehapen espedientearen ebazpenean finkatuko da.*

### **23. artikulua. Zigor-espedienteak bideratzea**

Majori Kiroldegiak zuhurtasunezko neurriak hartu, eta diru-zigorak jarri ahal izango ditu edo eskubideak kendu ahal izango ditu ekipamenduek behar bezala funtzionatzea galarazten duten jarrerak —arestian tipifikatuak— ikusten baditu.

Kasu guztietan, zigor-espedientea irekiko da, eta arau-hausleari aukera emango zaio helegitea edo egoera argitze aldera beharrezkotzat jotzen duen informazioa emateko. Informazio guztia jasota, Presidenteak, arau-hauste arinen kasuan, edota Administrazio Kontseiluak, arau -hauste larri eta oso larrien kasuan, bidezkoa deritzoten neurriak hartuko dituzte.



## **II. TITULUA. KIROL INSTALAZIO BAKOITZA BERARIAZ ERABILTZEKO ARAUAK**

### **1. KAPITULUA. PISTA ESTALIAK ETA KIROL INSTALAZIO ITXIAK ERABILTZEKO ARAUAK**

#### **24. artikulua. Pista estaliak eta kirol-Instalazio itxiak erabiltzeko arauak**

Artikulu hau kiroldegiko pista estaliei, tenis-pistei, squash, erabilera askoko pistei eta kirol-instalazio itxiei buruzkoa da.

Kiroldegiko pista estaliak une jakin batean erabili ahal izango dira, edo denboraldi baterako erreserba egin ahal izango da. Denboraldi baterako erreserbak Majori Kiroldegiak programatutako ekintzei kalterik egin gabe ezarriko dira, eta Majori Kiroldegiak horretarako baimena emanda. Instalazioa une jakin batean erabiltzeko, erabili aurretik ordaindu beharko da instalazioan bertan.

Lehiaketako partidetak erreserbei dagokienez, erreserbek ezarritako ordutegira egokitu beharko dute, eta partidaren hasiera ezingo da 15 minutu baino gehiago atzeratu. Halakoetan, partidak bertan behera utzi ahal izango dira, programazioari kalte egingo zaiola ikusten bada.

Taldeetako erabiltzaileek instalazioa erabiltzeko emakida badute, emakidako ordu guztiak ordaindu beharko dituzte, erabili gabeak barne, baldin eta ez badute aurretik jakinarazi, gutxienez 48 ordu lehenago.

Instalazioak erabiltzeko emakida organo eskudunak antolatu edo baimendutako ekitaldien mende egongo da, eta ez da kalte-ordainik egongo baldintza horrengatik ekitaldiaren bat eten behar bada, edo ekitaldiaren instalazioa edo ordutegia aldatu behar bada. Hala ere, alde aurretik, behar adina denborarekin, jakinaraziko da hori; 48 orduko tartearrekin, gutxienez.

### **2. KAPITULUA. GIMNASIAKO ETA MUSKULAZIO ARETOAK ERABILTZEKO ARAUAK**

#### **25. artikulua. Gimnasiako eta muskulazio-aretoak erabiltzeko arauak**

Instalazio hauek 16 urtetik gorakoek erabil ditzakete. Gazteagoek baimena eskatu beharko dute.

Gimnasioak honela banatzen dira:

1- Sarbide librekoa: banaka erabiltzekoa da. Instalazio horretara sartzeko, sarrera-arau orokorrak bete behar dira.

2- Programatuak: aurretik aipatutako erreserba-araudiaren arabera, beste edozein kirol-gune bezala eskatu behar da. Sartzeko, arduradun batek joan beharko du taldearekin batera.



Gimnasioen erabiltzaileek ordenaturik eta garbi utzi beharko dituzte erabilitako elementuak, gimnasioak ondo funtzionatzeko, eta gainerakoen mesederako. Halaber, norberaren garbitasunerako ESKUOIHALA eramatea derrigorrezkoa izango da, makinak egoera onean zaintze aldera.

### **III. TITULUA. IKASTAROAK**

#### **26. artikulua. Ezarpen-eremua**

Titulu honetan adierazitakoa aplikatuko zaie Majori Kiroldegiak antolatutako ikastaroei, bai kirol-instalazioetan antolatutakoei, bai atari zabalekoei ere.

#### **27. artikulua. Izena emateko prozesua**

Denboraldi bakoitzaren hasieran, ikastaroetan izena emateko faseetarako datak eta ordutegiak, eta izena emateko prozedura finkatuko dira. Aipatu prozesua, printzipio hauek aintzat hartuta egingo da:

1- Publizitatea: prozesu guztia publikoa izango da, eta telefono bidez nahiz web orrian kontsultatu ahal izango da. Zabalkunde berezia emango zaie aurretik izena emateko eta/edo izena emateko datei.

2- Arintasuna: ahalik eta sistemarik arinena ezarriko da, eta herritarrak mugiaraztea eta gogaitzea saiheste aldera.

3- Aurretiko ordainketa: izen-emateak balio izateko, ikastaroetan tokia lortu duten pertsonak ikastaroaren prezioa edo zehazten den zatia ordaindu beharko dute, denboraldi bakoitzerako adierazitako dataren aurretik. Epe hori igaro ondoren ordainketarik egin ez bada, baja emango zaio eskaera horri, eta tokia libre geratuko da. Toki hori itxaronzerrendako hurrengoak hartuko du, halakorik badago.

#### **28. artikulua. Baliozabetzeak eta etetak**

Matrikulan ordaindutakoa ez da ezein kasutan itzuliko, baldin eta matrikula bertan behera uzteko eskaera ez bada gutxienez ikastaroa hasi baino zazpi egun lehenago egiten.

Irakaslea aldatu izanagatik ere ez da matrikularen dirua itzuliko.

Ezinbestean ikastaroren bat eteten bada, bertan behera geratutako ikastaroaren zati proportzionala itzuliko da.

Ikastaroak egin ahal izateko, ikastaroek baliozko izen-emate kopuru bat izan beharko dute gutxienez, ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago. Kopuru hori aldatu ahal izango da ikastaro-motaren arabera. Ikastaroa egiteko gutxienerako pertsona-kopurua egongo ez balitz, ikastaroa bertan behera geratuko litzateke, eta dirua itzuliko litzateke izena emandakoei, ahalik eta epe laburrenean. Eskolen kalitatea zaintzeko, gehienez ere egon daitekeen parte-hartzaile kopurua finkatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera.



Eguberrietan eta Pazko-asteen opor-atseden hartuko da ikastaroetan.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo baxuagoko arau guztiak eta araudi honetan xedatutakoa ezeztatzen duten edo kontra egiten dioten arau guztiak.

### **AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea**

Araudi hau indarrean sartuko da 2010 urteko abenduaren 15ean, behin eta Majori Kiroldegia SMko Administrazio Kontseiluak onartu eta gero.



## 1 ERANSKINA

### **SQUASHAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Squashak erabiltzeko, alde zurretik eguna eta ordua gorde beharko dira. Halaber, jokatzekotan, abonatu beharko du izan, edo bestela, instalaziorako sarbidea izan beharko du erabilpen-abonatuaren edo eguneroko sarreraren bidez.
- b) Pistak astetik astera erreserba daitezke telefonoz edo instalazioan bertan.
- d) Kantxak erabiltzeko, elastikoa, galtza motza eta lurzoruan arrastorik egingo ez duten zapatilak erabili behar dira.
- e) Jolaserako pilotek gomazkoak edo tenisekoak izan behar dute, eta erabiltzaileek berek ekarri behar dituzte. Hala ere, instalazioak material egokia izango du.

## 2 ERANSKINA

### **GIMNASIOAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) 16 urtetik beherako gazteek ezin dute fitness-gelan sartu, eta ezin dituzte bertako materialak erabili. Adingabeko batek fitness-gela erabili nahi badu, bere tutoreetako batek harrerara joan beharko du, baimena eman diezaioten. Aipatu baimena gimnasioaren arduradunak eman beharko du.
- b) Gelako materiala erabiltzaileen erabilgarri egongo da; beraiei dagokie behar bezala erabiltzea. Zabarkeriagatik nahiz erabilera okerragatik materialari eragindako kalteak erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte.
- d) Antolatuko diren klaseetarako sarrerak tarifa bat izango du, hileko kuotaz aparte, eta kasuan-kasuan aplikatuko da.
- e) Erabilitako materiala (halterak, koltxonetak, bankuak, barrak, diskoak...), eta beste edozein material bere lekuan utzi behar da.
- f) Derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea makina guztietan, higiene-arrazoiak tarteko. Era berean, makinak erabili ondoren, makinetan utzitako izerdia lehortu beharko da.
- g) Kirol-oinetako egokiak erabili beharko dira; horrenbestez, txankletak eta halakorik erabiltzea debekatuta dago, erabiltzaileari ekar diezaiokeen arriskuagatik.
- h) Erabiltzaileak serie batetik bestera makina utzi beharko du, abonatuak txandaka erabili dezaten.
- i) Debekatuta dago gelara motxilak, kristalezko botilak eta janaria sartzea.
- j) Gelako monitoreari gure mailaren eta mugen berri eman behar zaio.
- k) Ariketak egiterakoan, ez dugu eragotzi behar gainerako erabiltzaileek makinak erabiltzea.
- l) Luzamenduak horretarako dagoen lekuan egin behar dira.
- m) Makinak ezin dira bere lekutik mugitu, ez indar-eremuak, ezta kardio-eremuak ere.
- n) Gelaren arduraduna eta teknikariak arduratuko dira ezarritako arauak betearazteaz.
- o) Halaber, gelaren arduraduna eta teknikariak erabiltzailearen esanetara egongo dira, zerbitzuaren kalitatea areagotze aldera azken horien iradokizunak jasotzeko.
- p) Edozein jarduera fisiko hasi aurretik, gomendagarria da hasierako mediku-azterketa egitea. Azterketa hori egiten ez bada, instalazioak ez du bere gain hartuko kirol-jardueran zehar abonatuak bere gain hartutako erantzukizunik. Majori Kiroldegiko langileek erabiltzaileak ariketaren bat egiteko arazoren bat duela, eta hori erabiltzailearen



osasunerako kaltegarria izan daitekeela antzemango balute, Majori kiroldegiko zuzendaritzak beretzat gordetzen du instalazioetan kirola egiten jarraitzea debekatzeko eskubidea, mediku batek jarduera horretan jarraitzeko gaitasuna bermatu bitartean. Edonola ere, edozein ikastarotan parte hartzeko, erabiltzaileak instalazioaren berariazko mediku-galdeketa bete beharko du, erabiltzaileari egin ditzakeen jardueretan aholkua emate aldera.

### 3 ERANSKINA

#### **SAUNA ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Zerbitzu hori 16 urtetik gorako erabiltzaileei, eta medikuaren gomendioz sauna erabili behar duten adin gabeei zuzenduta dago.
- b) Debekatuta dago sauna barrutia aldagela bezala erabiltzea.
- d) Zerbitzuaren erabilerak ordutegi-gaitasuneko muga du; beraz, gerta liteke zenbait unetan ordutegi-txandak ezartzea.
- e) Saunara sartu aurretik duxatzea nahitaezkoa da.
- f) Toalla erabiltzea nahitaezkoa da.
- g) Duxako zapatilekin sartzea nahitaezkoa da.
- h) Aldageletan hainbat jarduera debekatuta daude, besteak beste: bizarra moztea, depilatzea, ilea tindatzea, azazkalak moztea eta higiene pertsonaleko bestelako jarduerak.
- i) Saunara sartu aurretik, kanpoan utzi behar dira objektu metalikoak, betaurrekoak eta ukipen-lenteak, besteak beste.
- j) Sauna mistoa denean, bainujantzia erabiltzea nahitaezkoa izango da.
- k) Oro har, astelehen eta asteazkenetan gizonezkoen erabiliko dute sauna, eta astearte eta ostegunetan emakumezkoek. Gainerako egunetan, jaiegunak barne, saunaren erabilera mistoa izango da.

### 4 ERANSKINA

#### **TENIS PISTAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Tenis-pista egunero erabil daiteke instalazioak zabalik dauden ordutegiaren barruan.
- b) Pistak erabili ahal izateko, unean-unean indarrean dagoen tarifa ordaindu beharko da, pista erabili aurretik.
- d) Pista erreserbatu, eta erabili ez duenak erreserbari dagokiona ordaindu beharko du, baldin eta 24 ordu lehenagotik horren berri eman ez badu. Aipatu zenbatekoa ordaindu ezean, ezin izango du berriro ere jokatu zor den hori ordaindu arte. Euria edo eguraldi txarra denean, artikulua hau baliogabetu egingo da.
- e) Pistak gauzez erabiltzean, kuota bat ordaindu beharko da argi artifizialagatik.
- f) Majori Kiroldegiak beretzat gordetzen du **PROMOZIO, IKASTARO ETA TXAPELKETAK** antolatzeko beharrezkoak dituen orduak hartzeko eskubidea.
- g) Urteko erreserba egiteko zerbitzua egongo da erabilgarri, halakorik eskatzen duten abonatuentzat. Urteko zozketa horretan, erreserbatutako orduak arautegiak finkatutakoaren arabera ordainduko dira. Pista erreserbatuak duenak aldeztu aurretik abisua emanda, pista erabiltzen ez badu, eta beste erabiltzaile batek erreserbatzen badu, ez zaio kobratuko urteko erreserba duenari. Pista inork erabiltzen ez badu, urteko erreserba egina duenak ordaindu beharko du.





## 5 ERANSKINA

### **PADEL PISTAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Padel-pista egunero erabil daiteke instalazioak zabalik dauden ordutegiaren barruan.
- b) Pista erreserbatu, eta erabili ez duenak erreserbari dagokiona ordaindu beharko du, baldin eta 24 ordu lehenagotik horren berri eman ez badu. Aipatu zenbatekoa ordaindu ezean, ezin izango du berriro ere jokatu zor den hori ordaindu arte. Euria edo eguraldi txarra denean, artikulua hau baliogabetu egingo da.
- d) Urteko erreserba egiteko zerbitzua egongo da erabilgarri, halakorik eskatzen duten abonatuentzat. Urteko zozketa horretan, erreserbatutako orduak arautegiak finkatutakoaren arabera ordainduko dira. Pista erreserbatutako duenak alde aurretik abisua emanda, pista erabiltzen ez badu, eta beste erabiltzaile batek erreserbatzen badu, ez zaio kobratuko urteko erreserba duenari. Pista inork erabiltzen ez badu, urteko erreserba egina duenak ordaindu beharko du.
- e) Majori Kiroldegiak beretzat gordetzen du **PROMOZIO, IKASTARO ETA TXAPELKETAK** antolatzekeko beharrezkoak dituen orduak hartzeko eskubidea.
- f) Pista, erabili aurretik ordaindu beharko da.

## 6 ERANSKINA

### **PILOTALEKUA ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Pilotalekua egunero erabil daiteke instalazioa zabalik dagoen ordutegiaren barruan.
- b) Pilotalekua erabili ahal izateko, unean-unean indarrean dagoen tarifa ordaindu beharko da, pilotalekua erabili aurretik.
- d) Pilotalekua erreserbatu, eta erabili ez duenak erreserbari dagokiona ordaindu beharko du, baldin eta 24 ordu lehenagotik horren berri eman ez badu. Aipatu zenbatekoa ordaindu ezean, ezin izango du berriro ere jokatu zor den hori ordaindu arte.
- e) Pilotalekua gauzez erabiltzean, kuota bat ordaindu beharko da argi artifizialagatik.
- f) Majori Kiroldegiak beretzat gordetzen du **PROMOZIO, IKASTARO ETA TXAPELKETAK** antolatzekeko beharrezkoak dituen orduak hartzeko eskubidea.
- g) Urteko erreserba egiteko zerbitzua egongo da erabilgarri, halakorik eskatzen duten abonatuentzat. Urteko zozketa horretan, erreserbatutako orduak arautegiak finkatutakoaren arabera ordainduko dira. Pilotalekua erreserbatutako duenak alde aurretik abisua emanda, pilotalekua erabiltzen ez badu, eta beste erabiltzaile batek erreserbatzen badu, ez zaio kobratuko urteko erreserba duenari. Pilotalekua inork erabiltzen ez badu, urteko erreserba egina duenak ordaindu beharko du.



## 7 ERANSKINA

### **KIROL ANITZEKO PISTAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Kirol anitzeko pista egunero erabil daitezke kirol-instalazioak zabalik dauden ordutegiaren barruan.
- b) Lurzoruan arrastorik utziko ez duen kirol-oinetakoak erabili beharko dira.
- d) Erreserbak Majori Kiroldegian egin beharko dira.
- e) Pista erreserbatu, eta erabili ez duenak erreserbari dagokiona ordaindu beharko du, baldin eta 24 ordu lehenagotik horren eman ez badu. Aipatu zenbatekoa ordaindu ezean, ezin izango du berriro ere jokatu zor den hori ordaindu arte.
- f) Pista gauzez erabiltzean, kuota bat ordaindu beharko da argi artifizialagatik.
- g) Majori Kiroldegiak beretzat gordetzen du **PROMOZIO, IKASTARO ETA TXAPELKETAK** antolatzekeo beharrezkoak dituen orduak hartzeko eskubidea.
- h) Pista, erabili aurretik ordaindu beharko da.

## 8 ERANSKINA

### **BELAR ARTIFIZIALEKO ZELAIK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Errugbi-zelaia eta bertako kirol-pista eta errugbi-zelaien behealdeko zelaia Altamirako instalazioak irekita dauden orduetan erabil daitezke. Ezohiko erabilerak eta instalazioak berezkoak dituen orduetatik kanpokoak 5 egun lehenago eskatu beharko dira, eta kirol-teknikariaren oniritzia jaso beharko dute.
- b) Erabiltzaileek Majori Kiroldegian egin beharko dituzte erreserbak.
- d) Pista erreserbatu, eta erabili ez duenak erreserbari dagokiona ordaindu beharko du, baldin eta 24 ordu lehenagotik horren berri eman ez badu. Aipatu zenbatekoa ordaindu ezean, ezin izango du berriro ere jokatu zor den hori ordaindu arte. Euria edo eguraldi txarra denean, artikulua hau baliogabetu egingo da.
- e) Zelaia gauzez erabiltzean, kuota bat ordaindu beharko da argi artifizialagatik.
- f) Majori Kiroldegiak beretzat gordetzen du **PROMOZIO, IKASTARO ETA TXAPELKETAK** antolatzekeo beharrezkoak dituen orduak hartzeko eskubidea.
- g) Zelaia, erabili aurretik ordaindu beharko da.
- h) Belar artifizialetan erabiliko den oinetakoa **BOTA TAKOANITZA** izenekoa izango da. Beheko zelaiko belar artifizialerako azalera zimurreko berariazko oinetakoak onartuko dira. Beste edozein zola duen oinetakoa debekatuta dago.



## 9 ERANSKINA

### **IGERILEKUAK ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) **Bainujantzia, bainu-txanoa eta uretako zapatilak erabili behar dira.**
- b) Ur-lamina ezberdinetan sartu aurretik **dutxatu behar da.**
- d) Debeekatuta dago bainu-eremuaren inguruetan korrika egitea.
- e) Debeekatuta dago bainu-eremuetan txikleka mastekatzea, edatea, edo jatea.
- f) Segurtasun arrazoiak direla eta, debeekatuta daude joko eta praktika arriskutsuak.
- g) Debeekatuta du sartzea edozein gaixotasun infekto-kutsakorra duenak.
- h) Segurtasuna bermatze aldera, uretan sartu baino lehen, sorosleari jakinarazi zein den zure maila, eta jardueran eragina izan ditzaketen lesio edo arazoak zeintzuk diren.
- i) Debeekatuta dago koltxonetak, baloiak, hegalak, nahiz kristalezko betaurrekoak erabiltzea, zentroak antolatutako jardueretan izan ezik.
- j) Medikuren preskripzio edo entrenamendu kasuan sorosleari jakinarazi behar zaio, horretarako ordutegietan, betiere.
- k) Sorosleak agindutakoa bete behar da, uneoro.
- l) Majori Polikiroldegiak kale bakoitzerako erabiltzaile muga jar dezake, erabilera publikoko igerilekuen araudian jasotakoaren arabera, hain zuzen. Halaber, bainu libreko kaleak itxi ditzake igeriketa ikastaroak direla eta, kale horiek erabili behar izateagatik.
- m) Eraikineko materiala barruan bakarrik erabiliko da, monitorea eta/edo sorosleak erabakitakoaren arabera.
- n) Erabilera ezberdinetarako guneak errespetatu behar dira (ikastaroak, igeriketa libre...). Gune horiek erabilera bakoitzerako ezarritako seinaleztapen-sistemaren bitartez adieraziko dira:

Berdea: bainu librea  
Urdina: igeriketa lasaia  
Horia: igeriketa azkarra  
Gorria: ikastaroak

- o) Ondoeza nabaritzuz gero, uretatik atera eta sorosleari jakinarazi behar zaio.
- p) Debeekatuta dago igerilekura etzaulkiak, itzalkinak eta antzeko osagarriak sartzea, medikuak ziurta ditzakeen egoeretan izan ezik.
- r) Majori Kiroldedia ez da izango aldageletan galdutako, lapurtutako edo ahaztuta utzitako objektuen erantzule.
- s) Lurra ukitu ezin den igerileku batera sartzeko, erabiltzaileak igeri egiten jakin behar du, gurasoekin nahiz arduradunen batekin ez badago, edo Majori Kiroldegiak antolatu edo baimendutako ikastaroren batean parte hartzen ari ez bada behintzat. Halaber, erabiltzailearen batek uretan seguru ez ibiltzeko moduko gaixotasunen bat badu (bihotzeko gaixotasunak, epilepsia, eta abar), edo beste erabiltzaileen segurtasunari erasateko moduko gaixotasunen bat badu, igerilekuko sorosleei jakinarazi behar die. Alde horretatik, sorosleek libre izango dute arriskuak eragozteko hartu behar diren neurriak hartzea.
- t) Zerbitzu hau erabiltzeko adinak honako hauek izango dira:
  - Debeekatuta dago igerileku-barrutira bakarrik sartzea 10 urtetik beherakoa bada.
  - Debeekatuta dago igerileku txikira bakarrik sartzea 6 urtetik beherakoa bada.
  - Debeekatuta dago igerileku handira bakarrik sartzea 8 urtetik beherakoa bada.



## 10 ERANSKINA

### **ATLETISMOKO PISTA ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Funtsean, atletismo-espezialitateak egiteko erabiltzen da instalazioa.
- b) Ez dago baimendurik jaurtigaiak jaurtitzea.
- c) Pistako eta gimnasioko materiala erabiltzen dutenek bere tokian utzi beharko dute erabili ondoren. Kirol-talde federatuek soilik erabil dezakete materiala.
- d) Ez dira erabiliko atletismorako propio ez diren takoak. Bestela, berariaz lasterketarako zapatilak erabiliko dira, zola lisokoak.
- e) Pistako kaleak instalazioan zehaztuta egon daitezke, baina aldez aurretik, 5. eta 6. kaleak gordeko dira banakoek erabiltzeko. Gainerakoak, programazioen arabera.

## 11 ERANSKINA

### **ESKALADA MURRUA ERABILTZEKO ARAUAK**

- a) Gune hau eskalatzeko erabiliko da. Debekatuta dago beste edozein jarduera egitea.
- b) Eskalatzeko zapatilak edo oinetako bereziak erabiltzea gomendatzen da.
- d) Debekatuta dago pistako eskalada-murruan eskalatzeko mendiko federatu-txartela izan gabe, monitore batekin edo arduradunarekin izan ezik.
- e) 'Boulder' egiteko BETI jarriko dugu azpian koltxoneta, eta ez dugu bi metrotik gora egingo, soka gabe eskalatzeko eremua eta/edo altura mugatuta.
- f) Boulder-mailatik gora eskalatzeko, eskalatzeko eskarmentua izan behar da, eta/edo mendiko federatu-txartela.
- g) Debekatuta dago hormako zintak, mosketoiak eta heldulekuak manipulatzeko eta lekuz aldatzea.
- h) 14 urtetik beherako eskalatzaileek eskarmentua duen heldu, monitore nahiz arduradun batek gainbegiratuta eskalatuko dute.
- i) 14 urtetik beherako eskalatzaileek ezin izango dute segurtasun-lerroa gainditu sokarik erabili gabe.
- j) Erabiltzaileak bere materiala ekarri behar du.
- k) Debekatuta dago rokodromora kristalezko botilak eta janaria sartzea.



## 12 ERANSKINA

### **PISTEN URTEKO ERRESERBA EGITEKO ARAUAK**

Pisten urteko zozketarako prozedura honi jarraituko zaio:

1. Urteko erreserbak **ZOZKETA** bitartez esleituko dira. Horretarako sarbidea izango dute egoki deritzoten erabiltzaile guztiek. Erreserba kirol-denboraldiaren amaierara arte izango da; alegia, abuztuaren 31a arte.
2. Zozketan parte hartu nahi dutenek, horretarako finkatuko den epearen barruan eskaera-eredua bete beharko dute. Horretarako, faxa nahiz posta elektronikoa balia dezakete, edo instalazioan bertan utzi dezakete, orrian eskatutako datuak (izena, harremanetarako datuak, eta abar) emanda.
3. Eskaera guztiak **JASO DIREN ORDENA ZORROTZAREN ARABERA** zenbakitu ondoren egingo da zozketa. Zozketak egokitutako eskaera-zenbakia aintzat hartuta egingo da pisten banaketa. Orduen eskaera egiteko, izena emateko epea jarriko da. Eskaera guztiak jaso ondoren, zozketa egingo da.
4. Zozketan pertsona bakoitzak aukeratutako orduak sartuko dira.
5. Zozketa instalazioan egingo da horretarako zehaztuko den egunean eta orduan, prozesuari gardentasun handiena emate aldera.
6. **ASTEAN 2 ORDU** eska daitezke; alabaina, **ASTEKO ORDU BAKAR BAT** esleituko da pertsona bakoitzeko.
7. Zozketa eginda eta pistak banatuta, libre geratuko diren orduak unean uneko erreserba gisa aloka daitezke.
8. Denboraldiko erreserbaren ordainketak hileroko egingo dira, transferentzia bidez, txartelarekin ordainduta, nahiz esku-dirutan. Erreserba hasi baino **10 egun** lehenago egin beharko da ordainketa. Instalazioaren araua da erreserbak aldez aurretik ordaindu behar izatea. Argiaren prezioa ez dago urteko erreserbaren kostuan sartuta. Argia, erabiltzen den unean bertan ordain daiteke, edo aldez aurretik hilabeteko osoan.
9. Epe bakoitzaren ordainketa eguneratuta ez badago, erreserba eten egingo da.
10. Majori Kiroldegia SMk beretzat gordetzen du erreserbatutako pistak erabiltzeko eskubidea, baldin eta instalazioetan txapelketak egiten badira. Halakorik gertatuz gero, pisten erabiltzaileei horren berri emango zaie aldez aurretik, eta beste ordu batean jokatzeko aukera emango zaie. Jakinarazpena erreserba-ordua baino **48 ordu** lehenagoko epean egin daiteke.
11. Erabiltzaileek astebete lehenago adierazi beharko dute erreserba eten nahia. Halakoetan, ez da erreserba hori kobratuko, eta kopuru hori itzuli egingo da, edo beste egun eta ordu batean gordetzeko aukera eskainiko zaio erabiltzaileari.